

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala:	0170 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Programa:	700 - Berdintasuna
Funtzionala:	327 - Herritarren bizikidetzaren sustatzea

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bizitzako esparru guztietan emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko lan egiten du. Alde batetik, foru politika guztietan genero ikuspegia txertatzea bultzatuz, eta bestetik, lurraldean tokiko berdintasunerako politikak sustatuz, talde feministen eta emakume taldeen lana indartuz, eta gizartean berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa eta aldaketa soziala bultzatuz.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko datu orokorrek ez dute ia aldaketarik izan, aldaketa horiek ez baitira epe laburretan gertatzen. Gipuzkoako emakumeen jardueraren tasa % 51,7koa da, eta gizonena, berriz, %61,2koa (Eustat). Lanaldi motari dagokionez, lanaldi partziala duten EAEko biztanleen % 66,6 emakumeak dira, eta gizonak, berriz, %33,4 (zifrak 2020. Emakumeak eta gizonak Euskadin). Gainera, emakumeek hartzen dituzte gehien uztartze-neurriak lan-eremuan. Bestalde, EAEko etxeko eta zaintzako lanen banaketari buruzko datuek adierazten dute emakumeek, oro har, gizonek baino ordu eta erdi gehiago ematen dutela egunean jarduerari (Eustat).

Horrek ondorio ekonomikoak ditu emakumeentzat. Hala, Gipuzkoako soldata-arrakala % 25 ingurukoa da, gizonen batez besteko soldata 28.052 €-koa baita, eta emakumeen kasuan, berriz, 21.007 €-koa (Ogasun eta Finantza Saila). Bestalde, Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta pertsonala 10.641 €-koa da gizonen alde, emakumeek 17.459 € sartzen baitituzte urtean, eta gizonek, berriz, 28.100 € (Zifrak 2020. Emakumeak eta gizonak Euskadin).

Datu horiek agerian uzten dute lanaren sexu-banaketaren eta genero-rolen aztarnek bere horretan jarraitzen dutela, eta, ondorioz, emakumeen bizi-baldintza okerragoak dakartzatela, eta, gainera, pobrezia feminizazioa edo indarkeria sexista bezalako fenomeno larriak sostengatzen dituztela. Egiturazko desberdintasunak dira, mundu osoan gertatzen direnak, eta, aldaketa txikiak izan arren, denboran zehar mantentzen direnak. Horregatik, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak helburu espezifiko bat ezarri du (5. zenbakia) emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta, aldi berean, gainerako helburuetan genero-ikuspegia txertatzea planteatzen du.

Behararen deskribapen xehatua:

- Lan esparruan emakumeen independentzia ekonomikoa eta berdintasuna sustatzeko beharra.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren detekzioa, prebentzioa eta arreta hobetzeko beharra.
- Zaintzen gizarte-erantzunkidetasuna eta gizonen etxeko lanetan eta zaintza-lanetan duten erantzunkidetasuna sustatzeko beharra.

Nori zuzendua:

GFA, Tokiko administrazioak eta elkarteak eta talde feministak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileria - kanpoko asistentzia teknikoa - aurrekontua.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

1. Planen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa
2. Lan-eremuak martxan jarri eta koordinatu.
3. Gaikuntza-prozesuak diseinatzea.
4. Gidak, orientabideak eta jarraibideak egitea

5. Bestelakoak: diru-laguntzak kudeatzea, txostenak egitea, bilerak antolatze, erakunde arteko egituretan parte hartzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Planak, aholkularitza eta egiaztatze txostenak, prestakuntza, diru-laguntzak, jarraibideak, sentsibilizazio ekimenak, gidak, jarraipen txostenak.

Programaren arau esparrua:

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako,4/2005 Legea, martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatuta.
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, 2/2015 Foru Araua.
EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII plana
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III Foru Plana

2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Foru politika guztiak hobeto lerrokatzea berdintasuna sustatzeko bidean, lankidetzaz gobernantza indartuz GFAn bertan, udalekiko harremanetan eta Gipuzkoan berdintasunaren alde lanean diharduten talde feministekin eta emakumeen elkarteekin.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Berdintasunaren arloan GFAn inplementatutako eta trebatutako berdintasunerako unitateen kopurua (2019: 2 - 2023: 9)	Kopurua	>=	3,00	7,00	8,00	9,00
Toki mailan berdintasunerako politikak bultzatzeko abian jarritako programa, lan espazio eta ekimen espezifikoen parte hartu duten udalen kopurua. Berdintasunerako hiru unitate berriren ezarpena,	Kopurua	>=	46,00	40,00	5,00	50,00
Gipuzkoako berdintasunerako partaidetza eta solaskidetzaren espazioan parte hartu duten berdintasunaren aldeko emakume elkarte eta talde feministen kopurua	Kopurua	>=	19,00	25,00	5,00	35,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Barne baldintza egokiak sortzea genero zeharkakotasuna ezartzeko foru mailan.



% 90,48



% 2,07

Ordainketa kredituak

Datozen urteetako gastuak

Sarrera lotua

Hasiera data

Bukaera data

Etorkizuna eraikiz

Jarduketa ildoak, guztira

381.015,55

2023/01/01

2023/12/31

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.1 Ekintza Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren jarraipena	39.380,84			2023/01/01	2023/12/31	
1.2 Ekintza Berdintasunerako departamentu unitateen ezarpena bultzatzea eta haiekin lan esparru bat sortzea.	21.150,99			2023/01/01	2023/12/31	
1.3 Ekintza Berdintasunerako Organoari laguntza teknikoa ematea berdintasunerako foru politikak bultzatzeko, koordinatzeko, aholkatzeko eta haien jarraipena egiteko lanean.	113.620,63			2023/01/01	2023/12/31	
1.4 Ekintza Foru departamentuetan sustatzea eta aholku ematea genero ikuspegia sartu dezaten beren alorreko politiketan eta Berdintasunerako III.Plan inplementa dezaten.	72.693,56			2023/01/01	2023/12/31	
1.5 Ekintza Berdintasunerako Organoak III. Planaren esparruan gauzatu behar dituen ekintza espezifikoak ezartzea.	105.774,20			2023/01/01	2023/12/31	
1.6 Ekintza Genero ikuspegia aurrekontu programetan txertatzea.	22.765,21			2023/01/01	2023/12/31	
1.7 Ekintza Programaren dirulaguntzen edota kontratuen mapa linguistikoa osatu	5.630,12			2023/01/01	2023/12/31	
2. Jarduketa ildoak: Toki eremuan berdintasun politikak sustatzea, lurraldeko udalerrien aniztasuna kontuan izanik.						
 % 80,82		 % 19,18				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	516.310,15	95.110,00		2023/01/01	2024/12/31	
2.1 Ekintza Berdintasunerako tokiko politikak laguntzea diru laguntza lerroen bitartez.	209.007,84			2023/01/01	2023/12/31	
2.2 Ekintza Udal eremuan berdintasunerako politikak	42.440,42			2023/01/01	2023/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
sustatzeari						
2.3 Ekintza Hitzarmena Beasaingo Udalarekin (HerriLab).	35.220,21			2023/01/01	2023/12/31	
2.4 Ekintza EHUko berdintasun masterrari laguntzea.	15.220,21	10.000,00		2023/01/01	2024/12/31	
2.5 Ekintza Berdintasunerako politika mankomunalak laguntzea dirulaguntza lerroen bitartez.	18.709,21			2023/01/01	2023/12/31	
2.6 Ekintza Tokiko berdintasun politikak sustatzeko laguntza teknikoa	195.712,26	85.110,00		2023/01/01	2024/12/31	
3. Jarduketa ildoak: Gipuzkoan indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko foru politika koordinatzea.						
 % 89,92  % 10,08						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	214.951,04			2023/01/01	2023/12/31	
3.1 Ekintza Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ezagutza eta prebentzioa hobetzea foru eta lurralde mailan	79.664,78			2023/01/01	2023/12/31	
3.2 Ekintza Emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko foru-politika bultzatzeko eta haren jarraipena egiteko laguntza teknikoa	106.566,05			2023/01/01	2023/12/31	
3.3 Ekintza Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko Beldur Barik programari erakundearen artean laguntzea.	28.720,21			2023/01/01	2023/12/31	
4. Jarduketa ildoak: Mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko elkarte mugimendua sustatzea eta indartzea, eta GFArekin duten harremana bultzatzea.						
 % 56,16  % 43,84						

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	726.105,46			2023/01/01	2023/12/31	
4.1 Ekintza Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte mugimenduaren jarduerak laguntzea.	456.981,89			2023/01/01	2023/12/31	
4.2 Ekintza Emakumeen elkarteei laguntza teknikoa ematea proiektuak egiteko.	25.440,42			2023/01/01	2023/12/31	
4.3 Ekintza GUNEari laguntza teknikoa ematea.	111.921,47			2023/01/01	2023/12/31	
4.4 Ekintza Emakumeen jabekuntzarako eta gizarte partaidetzarako espazioak laguntzea (Donostiako emakumeen etxea).	45.220,21			2023/01/01	2023/12/31	
4.5 Ekintza Irungo alarde mistoaren antolakuntzari laguntzea.	35.220,21			2023/01/01	2023/12/31	
4.6 Ekintza Bidez Bide elkarteari laguntza ematea emakume migratuak ahalduntzeko eta gizartean eta lanean integratzeko.	25.220,21			2023/01/01	2023/12/31	
4.7 Ekintza Etorkizuna Eraikitzen: Gipuzkoako Emakumeen Etxeak indartzeko lurralde-mailako egitasmoa	26.101,05			2023/01/01	2023/12/31	✓
5. Jarduketa ildoak: Erakundeen arteko elkarlana modu aktiboan sustatzea, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alorrean.						
 % 80,00  % 20,00						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	43.321,26			2023/01/01	2023/12/31	
5.1 Ekintza Erakundeen arteko lana EAEko berdintasun politikak hobetzeko.	19.260,63			2023/01/01	2023/12/31	
5.2 Ekintza Erakundeen arteko lana estatu eta/edo nazioarte mailan berdintasuna sustatzeko.	24.060,63			2023/01/01	2023/12/31	

6. Jarduketa ildoak:

Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei buruz eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde.



% 100,00

Ordainketa
kredituak

Datozen
urteetako
gastuak

Sarrera
lotua

Hasiera
data

Bukaera
data

Etorkizuna
eraikiz

Jarduketa ildoak, guztira

406.303,15

2023/01/01

2023/12/31

6.1 Ekintza

Etorkizuna Eraikiz: aukera berdintasuna enpresan eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lana uztartzea.

146.660,63

2023/01/01

2023/12/31



6.2 Ekintza

Sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak

95.660,63

2023/01/01

2023/12/31

6.3 Ekintza

Berdintasunari buruzko topaketa eta jardunaldiak antolatzea.

70.660,63

2023/01/01

2023/12/31

6.4 Ekintza

Berdintasunaren arloko diagnostikoak, azterlanak eta txostenak egitea

33.660,63

2023/01/01

2023/12/31

6.5 Ekintza

Gipuzkoako emakume enpresarientzako ASPEGI saria babestea

9.220,21

2023/01/01

2023/12/31

6.6 Ekintza

Ohiturak eta jarrerak aldatzea, zaintza oinarrian duen gizarte-eraldaketa bultzatzeko

50.440,42

2023/01/01

2023/12/31

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Berdintasunerako organoak zeharkako izaera du. Bere jarduera esparru eskusiboa da, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan foru politikak bultzatzea. Organoari dagokio: berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, udal mailan berdintasunerako politikak sustatzeko neurriak ezartzea, Lurraldean sare eta praktika feministak indartzeko baldintzak sortzen laguntzea, indarkeria matxistaren aurkako foru politikak koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, herritarrak sentsibilizatzea eta gainerako euskal herri administrazioekin solaskidetza eta koordinazioa bermatzea berdintasunaren arloan.

Kuantifikazioa: 2.377.486,49 (% 99,76)

Ordainketa kredituak: 2.282.376,49 (% 99,75)

Datozen urteetako gastuak: 95.110,00 (% 100,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	(% 50,00)	
Go.HO.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako plangintza hobetzen jarraitzea.	Go.2.1.2. Plangintzaren fase guztietan genero ikuspegia txertatzeko irizpideen eta orientabideen ekarpena egitea.	(% 50,00)	
Go.HO.2.2. Gipuzkoako udalerrietan eta mankomunitateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren garapena sustatzea.	Go.2.2.1 Laguntza ematea udalei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasunerako esparruan bideratu beharreko proiektu estrategikoak planifikatzeko eta garatzeko.	(% 100,00)	
	Go.2.2.2. Mankomunitateei eta udalei aholkuak ematea euren berdintasunerako berariazko politikak hobetzeko eta arloetako politiketan eta prozedura administratiboetan genero ikuspegia txertatzeko.	(% 20,00)	
	Go.2.2.3. Gipuzkoako 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, berdintasun arloa ez dutenetan, berdintasunerako politika abian jartzeko laguntza ematea (Berdinbidean).	(% 20,00)	

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.3.3. Udalei eta mankomunitateei berdintasunerako organoak edo unitateak sortu eta finkatu ditzaten laguntzeko estrategia garatzea, lurralde oreka sustatuz eta Gipuzkoako udalerri txikien errealtatea kontuan hartuz.	Go.3.3.1. Udaletan eta mankomunitateetan berdintasunerako egiturak bultzatzea.	(% 80,00)	
	Go.3.3.2. Gipuzkoako udalerrietako Berdintasun sare teknikoa finkatzea lurralde mailan batera sendotzeko eta esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko, Berdinsareak bideratzen duen lanarekin bat etorrita.	(% 30,00)	
Go.HO.4.2. GFAko berdintasunerako departamentu unitateei GFAko langileei beren arloko jardueran emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren zeharkakotasunean laguntzea eta aholkatzea ahalbidetuko dien eskumenez hornitzea.	Go.4.2.2. Berdintasun Unitateekin mentorizazio esperientzia bat egitea programa edo departamentu proiektuetan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna planifikatzeko eta praktikan jartzeko.	(% 100,00)	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.2. Sexuaren arabera bereizitako datuekin egiten den tratamenduaren azterketa egitea, GFArentzako proiektu eta programa estrategikoen diseinuan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan duen inpaktuaren berri izateko.	(% 15,00)	
	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeko.	(% 15,00)	
Go.HO.5.4. GFaren kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea eta haien gainera jarraipena egitea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitatea eta eragina).	Go.5.4.2. Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan jasotako berdintasun klausulak betetzen diren eta hirugarren entitateek betetzen dituzten jakiteko ebaluazio eta jarraipen lanak egiteko metodologia lantzea.	(% 30,00)	
Go.HO.5.5. Lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitzea GFaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko	Go.5.5.2. Genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak lantzeko metodologia eguneratzea.	(% 40,00)	
Go.HO.6.1. Berdintasun arloan barne (departamentu barnekoa eta artekoa) eta kanpo (erakunde artekoa) lankidetzak indartzea.	Go.6.6.1. Administrazioaren hiru esparruek (erkidego, foru eta udal mailakoak) parte hartzen duten berdintasunerako erakundearen koordinazio guneetan parte hartze aktiboa izatea.	(% 20,00)	
	Go.6.1.2. Berdintasun arloan eta Pirinio Atlantikoak Departamenduarekin elkarlanean mugaz gaindiko ekimenak abiaraztea.	(% 20,00)	
	Go.6.1.3. Esparru guztietan (erkidego, estatu, komunitate eta nazioarte mailan) eta berdintasun arloan burutzen diren ekimenen gainera jarraipena egitea eta interesgarritzat hartzen diren horietan parte hartzea.	(% 20,00)	

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.6.2. GFAn mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin solastatzeko gune egonkorak sortzea eta ikusaraztea.	Go.6.2.1. GUNEA on-line plataforma indartzea, emakumeen eta gizonen berdintasun arloan GFAk parte hartzeko eta solastatzeko gune gisa.	(% 10,00)	
	Go.6.2.2. Elkarte feminista eta emakumeen elkarten artean dauden sareak GFAko Berdintasunerako Organorekin solastatzeko guneak sustatzea.	(% 15,00)	
Ek.HO.10.1. Berdintasunak ekonomia eta gizarte eraldaketan duen balioaz herritarrak sentsibilizatzea.	Ea.10.1.1. Herritarrak sentsibilizatzea genero desberdintasunek bizitzaren esparru guztietan nola eragiten duten jabearazteko.	(% 50,00)	
	Ek.10.1.4. Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako garapen iraunkorren eta berdintasunezkoen esperientziak ezagutaraztea.	(% 100,00)	
Ek.HO.11.1. Enpresei eta erakundeei laguntzea berdintasuna txertatu dezaten beren kulturaren, estrategien eta kudeaketa eremuan.	Ek.11.1.1. Legeak berdintasunerako plan bat edukitzea behartzen ez dituen enpresei berdintasunerako neurriak ezartzen eta kontziliazioa ahalbidetzen laguntzea, zaintza lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzeko.	(% 10,00)	
	Ek.11.1.2. Lurraldean berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea lortzeko neurrien ezarpenaren diseinuan lan egiten ari diren gipuzkoar enpresen artean ezagutzak, aitortzak eta agerikotasuna trukatzeko topaketak egitea.	(% 90,00)	
Ek.HO.11.3. Lurraldean kontziliazio erantzukidea sustatzea	Ek.11.3.1. HerriLab proiektua garatzea Gipuzkoako udalerri batean kontziliazio erantzukiderako esperientzia pilotu gisa.	(% 50,00)	
	Ek.11.3.2. HerriLab proiektuaren esparruan egindako ikaskuntzak sistematizatzea baliozkoak izateko eta Gipuzkoako beste udalerri batzuetan erabilgarri izateko.	(% 50,00)	
Ea.HO.8.1. Emakumeen elkarten, emakumeen etxeen eta ahalduztzeko eskolen lana indartzea, emakumeen ahalduztze pertsonala eta kolektiboa garatzeko tresna gisa.	Ea.8.1.1. Emakumeen elkarteei eta talde feministei ematen zaizkien baliabideak progresiboki egokitzea langile propioak kontratatu ahal izan ditzaten eta Gipuzkoako gizartearentzat interes orokorrekoak diren proiektuak burura eramanez ahal izan ditzaten.	(% 90,00)	
	Ea.8.1.2. Emakumeen Etxeen lurralde mailako eredu propio bat garatzea (eginkizunak eta helburuak, lurralde aniztasuna, GFArekiko harremana, aurrekontua, etab.).	(% 50,00)	
	Ea.8.1.3. Berdintasun proiektuetarako dirulaguntza deialdiaren esparruan emakumeen elkarteei laguntzea proiektuak aurkezterakoan.	(% 100,00)	

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Ea.HO.8.2 GFaren genero zeharkakotasunaren estrategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.	Ea.8.2.3. GGKE eta lurraldeko emakumeen arteko aliantzak sortzea, ezagutzak eta esperientziak elkar trukatzuta.	(% 10,00)	
Ea.HO.9.1. Gipuzkoako emakumeen elkartearen eta talde feministen eragin sozial eta politiko handiagoa ahalbidetzea.	Ea.9.1.1. Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak trebatzea berdintasunaren arloko foru politiken definizioan, egikaritzean eta ebaluazioan parte har dezaten.	(% 10,00)	
	Ea.9.1.2. Foru politikan emakumeek parte hartzeko Gunea finkatzea.	(% 65,00)	
Ea.HO.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).	Ea.9.2.1. Ekintza positiboko neurriak abiaraztea emakumeen parte hartzea eta erabaki hartzeak emendatzeko nola jai guneetan hala arte, literatura eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean.	(% 100,00)	
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkariak eta/edo postu publikoetan.	Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	(% 100,00)	
I.HO.14.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta informazioa biltzeko sistemak eta datuak komunikatzeko eta ezagutarazteko bideak hobetzea.	I.14.1.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaiari eta ezaugarriei buruzko hausnarketa espezializatuarako guneak indartzea, kontuan izanik, besteak beste, Covid-19ren eragina.	(% 30,00)	
	I.14.1.2. GFAk arreta emandako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuei buruzko informazio homogeneoa biltzeko sistema diseinatzea.	(% 15,00)	
	I.14.1.3. Foru zerbitzuek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei emandako arretaren gaineko urteko jarraipen sistema hobetzea.	(% 15,00)	
I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik."	V.14.2.1. Indarkeria matxista sexualak haurtzaroan dauzkan ezaugarriei buruzko ikerketa egitea, foru baliabideek eta zerbitzuek indarkeria mota horri aurre egin ahal izateko behar dituzten baliabideetan sakonduz.	(% 20,00)	
I.HO.14.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta.	I.14.3.1. Fokua emakumeen eta gizonen desberdintasunen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arteko loturan jartzen duten sensibilizazio ekintzak indartzea.	(% 25,00)	
	I.14.3.2. Egindako kalteari erantzun publikoa emateko eta erreparazio kolektiboa gauzatzeko eskubidea sustatzea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak berriz ere biktima izan daitezen saihesturik.	(% 25,00)	
	I.14.3.3. EAEko gazteen artean indarkeria matxistari aurrea hartzeko Beldur Barik erakunde arteko programan parte hartzea.	(% 100,00)	

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
I.HO.15.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzuen irismena eta kalitatea handitzea.	I.15.1.1. Indarkeria matxistaren emakume biktimentzat arreta psikosozial eta soziojuridikoko zerbitzua diseinatzea eta abian jartzea.	(% 50,00)	
I.HO.15.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredia beste foru baliabideetara, espezifikoki indarkeriaren arlokoak ez direnetara, zabaltzea.	I.15.2.1. Indarkeria matxistaren arloko foru lan guneak egokitzea, gai horri erantzuteko zerbitzu guztiak lan gune horietan bil daitezen, eta horrenbestez, biktinekiko arreta modu integralean eta koordinatuan bideratu ahal izan dadin.	(% 30,00)	
	I.15.2.2. Haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuetatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arreta hobetzeko lan plan bat zehaztea eta abian jartzea.	(% 30,00)	
I.HO.15.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen kalteak banan-banan erreparatzeko eskubidearen aldeko foru ekimenean aurrerapausoak egitea."	I.15.3.2. Laguntza eta aholkuak emanda, eta talde feministekin, emakumeen elkarteekin, Ahalduztzeko Eskolekin eta Emakumeen Etxekin koordinatuta, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arretaren dimentsio komunitarioa indartzea.	(% 50,00)	
I.HO.16.2. Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta ematean esku hartzen duten erakundeetan eta erakunde horien artean koordinazio eraginkorra ahalbidetuko duten tresnak sortzea.	I.16.2.1. GFAREN eta toki erakundearen artean, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arretan koordinazioa hobetzeko tresnak lantzea.	(% 25,00)	
	I.16.2.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta indarkeria mota horri aurrea hartzeko tokiko Protokoloak sustatzea.	(% 25,00)	
I.HO.16.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan foru eta toki politikak lerrokatzea.	I.16.1.3. GFAk eta toki erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko moduak koordinatzeko partekatzen dituzten guneak sendotzea.	(% 30,00)	

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, euskarazko administrazio atalaren aitorpena du. Eta horrek, euskara, laneko zein harremanetarako hizkuntza nagusia bihurtzen du gurean. Baita, herritarren harreran, laneko prestakuntza eta sustapenean, kontratazio administratiboan eta aplikazio informatikoetan.

Kategoria	Nola
1.- Zerbitzu hizkuntza	Emakume elkarteei eta berdintasunaren alorreko elkarteei eskaintzen zaien zerbitzua bi hizkuntzatan ematen da, bakoitzaren eskakizunaren arabera. GUNEAKo foro nagusian itzulpen zerbitzua eskaintzen da. Foru Aldundiak GUNEAn egiten dituen aurkezpen guztiak (dela Berdintasunerako Organosa edo beste zerbitzuak) euskaraz egiten dira. Lan taldeetan gaztelaniaz aritzen dira, parte-hartzaileen profila dela.
10.- Argitalpenak	Bi hizkuntzen erabilera bultzatuko da, eta edozein kasutan, hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak euskara eta gaztelaraz egongo dira.
2.- Lan hizkuntza	Departamentuetako berdintasun unitateekin egingo den trebakuntza prozesua eta langunea euskara hutsean izango dira. Beste zerbitzuekin aholkularitza lana egiterakoan, euskara da gure lan-hizkuntza. Euskara erabiltzen da lan hizkuntza bezala beste zerbitzuekin lan egiterakoan. Une onetan Berdintasun Plana ezartzeko aholkularitza teknikoak ematen digun enpresak, ordea, ez du bermatzen erabat euskaraz lan egitea (Beste zerbitzuekin dauzkagun harremanetan euskara erabiltzen dugu lan hizkuntza bezala. Hala eta guztiz ere, ezin dugu euskararen erabilera bermatu aholkularitza tekniko guztiekin. Beste zerbitzuekin dauzkagun harremanetan euskara erabiltzen dugu lan hizkuntza bezala. Hala eta guztiz ere, ezin dugu euskararen erabilera bermatu aholkularitza tekniko guztiekin. Proiektu honetan ezin dugu euskararen erabilera bermatu lan hizkuntza bezala, aholkularitza teknikoaren ezaugarriengatik (galdetu Berdintasuneko Zerbitzuan). Beste zerbitzu eta udalekin dauzkagun harremanetan euskara erabiltzen dugu lan hizkuntza bezala. Hala eta guztiz ere, ezin dugu euskararen erabilera bermatu aholkularitza tekniko guztiekin. En las relaciones con otros servicios, utilizamos el euskara como lengua de trabajo. Sin embargo, no podemos garantizar su uso por parte de todas las consultoras.

Kategoria	Nola
4.- Beste herri administrazioekiko harremanak	Gipuzkoako udalekin lan egiterakoan, euskara da lan-hizkuntza, bai idatziz bai ahoz. Aholkularitza teknikoak euskara lehenesten du zerbitzua ematerakoan.
	Gipuzkoako udaletan berdintasun politikak sustatzeko egiten diren prozesuetan euskara da lan-hizkuntza, bai idatziz bai ahoz.
	Emakumeen Etxeen inguruko proiektuan euskara da lan hizkuntza.
	Beste administrazioekin lan egiterakoan, euskara lehenesten da.
5.- Komunikazio instituzionala	Hiritarrei zuzendutako ekintza guztietan hizkuntz irizpideak erabiliko dira, euskarari lehentasuna emanez.
	Komunikazioaren atalean hizkuntz irizpideak erabiliko dira, euskarari lehentasuna emanez.
8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak	
	Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
	Bi hizkuntzen erabilera orekatua bermatuko da deialdietan, argitalpenetan eta, bereziki, ekitaldi publikoetan. Euskararen sustapena udal sektore publiko osoarekiko harremanetan
	Bi hizkuntzen erabilera orekatua bermatuko da deialdietan, argitalpenetan eta, bereziki, ekitaldi publikoetan. Euskararen sustapena udal sektore publiko osoarekiko harremanetan
	Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
	Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
	Deialdi, argitalpen eta bereziki ekitaldi publikoetan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.
	Bi hizkuntzen erabilera orekatua bermatuko da deialdietan, argitalpenetan eta, bereziki, ekitaldi publikoetan. Proiektuaren komunikazio-atalean bi hizkuntzen erabilera orekatua bermatuko da. Euskararen sustapena udal-sektore publiko osoarekiko harremanetan.
	Hitzarmenean hizkuntza irizpideak barneratu dira, programaren komunikazioari dagokionez.
	Hitzarmenean hizkuntz irizpideak barneratu dira, programaren komunikazioari dagokionez.
	Hizkuntz irizpideak sartuko dira 2023ko deialdian.
	Hizkuntza irizpideak txertatu dira proiektu hau dinamizatzeko pleguetan.
9.- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak	Sentsibilizazio kanpainak elebitan egiten dira, eta euskarazko mezuakzaintzen dira.

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Beren izaera edo funtzioak direla eta, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen duten entitate publiko eta pribatuekin partaidetzarako eta lankidetzarako harremanak eta bideak ezarri ahal izateko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan GUNEA deituriko solaskidetza politikorako esparru parte hartzaile bat dugu. Bertan mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin hartu-emanak ditugu, eta, era horretan, helburu bikoitza lortzen dugu: emakumeengan eragina duten foru politiken eta berdintasuna sustatzeko berariazko politiken osaketan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea; eta, emakumeen autonomia eta jabekuntza sustatzea, bizitza publikoaren, kulturalaren, ekonomikoaren eta sozialaren alderdi guztietan herritartasun aktiboaren jardunbideak indartuz.

Kuantifikazioa:	1.550.211,98	(% 65,05)
Ordainketa kredituak:	1.465.101,98	(% 64,03)
Datozen urteetako gastuak:	85.110,00	(% 89,49)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	(% 100,00)	7. Bestelako partaidetza prozesuak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honek harreman zuzena du GJHko 5. Helburuarekin: "Genero Berdintasuna", helburu honekin izango du aurrekontuaren lotura handiena.

Horretaz gain beste bi helburuekin harreman du Berdintasunerako aurrekontu programak:

- 16. Helbururarekin: "Bakea, justizia eta instituzio sendodak";
- 17. Helburuarekin: "Helbururak lortzeko aliantzak"

Kuantifikazioa: 2.354.721,28 (% 98,81)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	5-GENERO BERDINTASUNA Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	1.802.871,86	78.088,00
Helbubura	5.2 - Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzea, baita eremu publiko eta pribatuan gertatzen direnak ere, salerosketa eta sexu esplotazioa eta beste esplotazio mota batzuk barne.	261.417,45	
Jarduketa ildoak			
	Gipuzkoan indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko foru politika koordinatzea.	193.274,04	
	Mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko elkarte mugimendua sustatzea eta indartzea, eta GFArekin duten harremana bultzatzea.	6.525,26	
	Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei buruz eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde.	61.618,14	
Helbubura	5.4 - Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lanak aitortzea eta baloratzea gizarte babeseko zerbitzu publiko, azpiegitura eta politiken bitartez, eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatzea.	112.058,56	
Jarduketa ildoak			
	Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei buruz eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde.	112.058,56	
Helbubura	5.5 - Emakumeen parte hartze osoa eta eraginkorra, eta aukera berdintasuna bermatzea lidergoan erabakiak hartzeko maila guztietan, hala nola bizitza politikoan, ekonomikoan eta publikoan.	457.825,41	
Jarduketa ildoak			
	Mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko elkarte mugimendua sustatzea eta indartzea, eta GFArekin duten harremana bultzatzea.	401.276,18	
	Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei buruz eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde.	56.549,23	
Helbubura	5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan.	815.689,60	78.088,00

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Jarduketa ildoak			
	Barne baldintza egokiak sortzea genero zeharkakotasuna ezartzeko foru mailan.	344.744,05	
	Toki eremuan berdintasun politikak sustatzea, lurraldeko udalerrien aniztasuna kontuan izanik.	416.092,16	78.088,00
	Erakundeen arteko elkarlana modu aktiboan sustatzea, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alorrean.	34.657,01	
	Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei buruz eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde.	20.196,38	
Helbubura	5.X1 - Lan eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea, soldata diskriminazioari aurre eginez eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea sustatuz	155.880,84	
Jarduketa ildoak			
	Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei buruz eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde.	155.880,84	
	16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	7.876,17	
Helbubura	16.07 - Premiei erantzungo dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta adierazgarriak maila guztietan hartzen direla bermatzea.	7.876,17	
Jarduketa ildoak			
	Barne baldintza egokiak sortzea genero zeharkakotasuna ezartzeko foru mailan.	7.876,17	
	17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	448.863,25	17.022,00
Helbubura	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	448.863,25	17.022,00
Jarduketa ildoak			
	Toki eremuan berdintasun politikak sustatzea, lurraldeko udalerrien aniztasuna kontuan izanik.	100.217,99	17.022,00
	Gipuzkoan indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko foru politika koordinatzea.	21.677,00	
	Mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko elkarte mugimendua sustatzea eta indartzea, eta GFArekin duten harremana bultzatzea.	318.304,02	
	Erakundeen arteko elkarlana modu aktiboan sustatzea, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alorrean.	8.664,25	
Guztira		2.259.611,28	95.110,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2022	2023	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2024	2025	2026	2027 eta hurrengoak/ 2027 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	585.311,00	522.021,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	970.978,00	996.862,00	85.110,00				85.110,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	795.000,00	769.116,00	10.000,00				10.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.351.289,00	2.287.999,00	95.110,00				95.110,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	2.351.289,00	2.287.999,00	95.110,00				95.110,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	522.021,00				522.021,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	996.869,61		85.110,00		1.081.979,61	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	769.116,00		10.000,00		779.116,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.288.006,61		95.110,00		2.383.116,61	
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	2.288.006,61		95.110,00		2.383.116,61	